



**memoria**



**Sareen** sarea

Euskadiko Hirugarren Sektorre Soziala  
Tercer Sector Social de Euskadi

# AURKIBIDEA

<b>1</b>	<b>SAREEN SAREAREN AURKEZPENA</b>	
	Sare bazkideak.....	5
	Ikuspegia, misioa eta balioak.....	6
	Erakundea.....	8
<b>2</b>	<b>ZER EGIN DUGU 2023an?</b>	
	EHSS indartzea eta dinamizatzea.....	10
	Gobernantza eta eragin proaktiboa.....	20
	Harreamanak eta aliantzak.....	30
	EHSSren posizio soziala.....	38
<b>3</b>	<b>KOMUNIKAZIOA</b>	
	Sareen Sarea komunikabideetan.....	43
	Sareen Sarea sare sozialetan.....	44
<b>4</b>	<b>KONTUAK ARGI</b>	
	2023ko diru-sarrerak eta gastuak.....	45

**2023ko jardueraren memoria**  
Sareen Sarea  
Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala

Diseinua eta maketazioa:  
Sareen Sarea, 2024.

Laguntzailea:



BERDINTASUN, JUSTIZIA  
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA  
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,  
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

# Sare bazkideak

2023an, guztira, 17 sarek osatu zuten Sareen Sarea:

## Nor gara?

Sareen Sarea Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialeko erakundeen sareak biltzen dituen elkarte da. Sorrera formala 2014ko apirilaren 8an izan bazuen ere, hura sortzeko ideia urte batzuk lehenago sortu zen, Euskadiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaian.

Historian, Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialeko erakundeek sakabanatuta eta atomizatuta egon izan dira. Hori dela eta, azken urteetan presentzia, aitortpena, elkarrizketarako gaitasuna eta eragin politikoa handitzen laguntzen dieten sare eta federazioetan artikulatzeko ahalegina ikus daiteke.

Sareen Sarea hainbat alorren eta lurralderen bat egitearen adierazpide agerikoena da. Euskadiko Hirugarren Sektorre guztia batzeko helburuz sortu zen, eta kohesio eta parte-hartze handiagoa dituen gizarte justuago eta solidarioago baterantz aurrerapausoak emateko helburuz. Esklusiboki alderdi ekonomikora bideratuta dagoen eta pertsoneri erreparatzen ez diren garapen-eredu baten aurrean kritikoagoa den gizarte bat du helburu, eta gizarte-eredu gizatiarrago baterantz aurrerapausoak emateko proposamenak eta alternatibak sortu nahi ditu kolaborazioaren bidez.



Astialdi Sarea

Coordinadora de ONGD Euskadi  
Euskadiko GGKEen Koordinakundea

EAPN Euskadi



EHLABE



Elkartean



Euskal Gorra



Euskofederpen

Salud Mental Euskadi  
Buru Osasuna Euskadi  
Fedeafes

FEVAS



Gizatea



Harresiak Apurtuz



Hirekin



Hirukide



Lares Euskadi



ONCE



REAS Euskadi



Umeekin

Hitzarmena:  
En convenio con:



Unicef Comité País Vasco

# Ikuspegioa, misioa eta balioak

## Ikuspegia

Sareen Sarearen helburua hau da: gizarteak Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren erreferente eta aglutinatzaile gisa ikustea, gizarte- eta politika-alorreko hainbat eragilerengan eragiteko eta haiekin hitz egiteko gai dena; gizarte justua, kohesionatua, inklusiboa, solidarioa, parekidea, parte-hartzailea eta demokratikoa eraikitzen laguntzen duena; inklusio soziala, bizi-kalitatea hobetzea eta pertsonen eskubideak efektiboki betetzea defendatzen duena; sektorearen egituraketan ekarpena egiten duena Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala indartsuagoa eta kohesionatuagoa izan dadin, betiere duen aniztasunari erreparatuta.

## Misioa

Gizarte kohesionatua, inklusiboa, solidarioa eta parte-hartzailea sustatzea, pertsona guztien eskubideak berdin errespetatuko dituen, zaurgarrienei arreta berezia eskaintzen diena, eta ongizate kolektiboaren eta eraldaketa sozialaren bidez, hiritar guztien konpromiso aktiboa sustatzea. Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala bateratua, sendoa eta aitortua izan dadin lan egiten dugu, eta hark gaitasuna izan dezan gizarteko eta instituzioetako eragileetan eragiteko eta haiekin elkarriketak izateko.

## Balioak



### Elkartasuna

Babesgabeen eskubideen erantzukizuna.



### Eraldaketa

Eraldaketa sozialarekin erantzukizuna eta konpromisoa, eskubideen aldarrikapena eta defentsa, hiritarren parte-hartze eta erantzukizun aktiboa sustatuz.



### Gardentasuna

Kudeaketan erantzukizunez jokatzeko; horretarako, erabakiak hartzean eta informazioa maneiatzean gardenak izatea eta erakunde-kideek, administrazio publikoek, gizarte-eragileek eta gizarteak bertara sartzeko aukera izan dezaten bermatzea.



### Kooperazioa

Hirugarren sektoreko erakundeekin (eta beren artean), administrazioarekin, eta hiritarrekin, hiritarren helburu komunak eta esperotako misioa betetzen direla bermatzeko.



### Pluraltasuna

Sareen Sarearen baitako aniztasuna eta sektoreko aniztasuna aitortzea, eta barne-demokraziaren eta parte-hartzearen bidez beren ordezkagarritasuna bermatzea.



### Independentzia

Pentsamenduan eta ideologian eta independentzia instituzionala, politikoa eta ekonomikoa, gizarte-eragileekin duen harremanean eta eraginean faktore horiek nahas ez daitezten.



### Demokrazia

Erantzukizun komuna eta parte-hartze ekitatiboa eta inklusiboa sustatzea misioari eta ikuspegiari dagokionez, eta erabakiak elkarrekin hartzea kide guztiak ados dauden diskurtso, posizionamendu eta akordioak lortzeko.




### Autonomia

Sare bakoitzaren errealitatearekiko autonomia eta Sareen Sarearen diskurtsoa, posizioa eta aldarrikapenekiko errespetua, interes komunen aldeko lan eginez.



# Erakundea



## Biltzar Nagusia

Sareen Sarearen Biltzar Nagusia erakundearen erabakitze organo gorena da. Gutxienez urtean behin elkartzen da, eta entitate bazkide guztiek osatzen dute.

## Zuzendaritza Batzordea

Zuzendaritza Batzordea, Batzar Nagusiaren xedapen eta arauari jarraikiz elkartearen interesak zuzentzen, kudeatzen eta ordezkatzeko dituen gobernu-organoa da. Entitate bazkideek bakarrik izango dute gobernu-organoa parte hartzeko aukera. Zuzendaritza Batzordea entitate bazkide guztiek osatuko dute, eta bakoitza berak aukeratu duen pertsona fisiko batek ordezkatu du. Gutxienez hiru hilean behin egin beharko dute bilera, jarduera sozialen garapenak ahalbidetzen badu. Orain hilean behin egiten dute bilera.

## Lan-batzordeak

- ⇒ Eragin Politikorako Batzordea
- ⇒ Barne Sendotzerako Batzordea
- ⇒ Gizarte Itunerako Batzordea
- ⇒ Haurtzaro, Nerabezaro eta Gazteriaren Eskubideetarako Batzordea
- ⇒ Komunikaziorako eta Sentsibilizazio Sozialerako Batzordea
- ⇒ Inklusio-batzordea Batzordea
- ⇒ GJH eta 2030 Agendarako Batzordea
- ⇒ Sexu-jazarpenaren, sexuagatiko jazarpenaren eta LGTBI\* pertsonen aurkako jazarpenaren prebentziorako eta jarduketarako Protokoloaren Jarraipen Batzordea\*

## Lantalde teknikoa

2023an lau pertsonek osatu dute talde teknikoa: koordinatzailea, koordinazio-teknikaria, administrazio teknikaria eta komunikazioa eta kudeaketan laguntzeko teknikaria.



# Zer egin dugu 2023an?

## 2.1. Euskadiko hirugarren sektore soziala indartzea eta dinamizatzea

**Zuzendaritza Batzordearen 11 bilera eta Biltzar Nagusiaren 3 Bilera (bi ohiko bilera eta ezohiko bat)** baliagarriak izan dira sarearen barruko kohesioa indartzeko, askotariko ikuspuntuak partekatzeko, adostasunak lortzeko, irizpideak bateratzeko eta EHSSren sareen arteko etengabeko lankidetzan erabakiak hartzeko, eta, hala, beste eragile batzuekin eta Administrazio Publikoekin lankidetzeta eta kooperazioa sustatzeko, aurrerago ikusiko dugun moduan.

Presidenteak, presidente ordeak, idazkariak, erakundeko diruzainak eta koordinatzaile teknikoak eratutako **Batzorde Iraunkorra** 11 aldiz bildu da formalki.

**Batzorde eta lan-talde** hauek oso aktiboki jarraitu dute lanean aurten:

- ⇒ **Barne Sendotzerako Batzordea:** lau aldiz bildu da hirugarren sektore soziala indartzeko, egituratzeko eta barne-kohesioa lortzeko.

- ⇒ **Sexu-jazarpenera, sexuagatiko jazarpenera eta LGTBI\* pertsonen aurkako jazarpenera prebenitzeko eta aurre egiteko protokoloaren Jarraipen Batzordea:** Batzorde hori behin elkartu da Protokoloaren dokumentuaren gainean gogoeta egiteko eta 2023 eta 2024rako ekintzen plangintza egiteko.
- ⇒ **Komunikaziorako eta Sentsibilizazio Sozialerako Batzordea:** Batzorde hori 5 aldiz elkartu da eta komunikazio-kanpaina prestatzen eta EHSSren Eguneko prestaketak eta hainbat komunikazio-kanpaina egiten jardun du.
- ⇒ **Sareen Sareko Haur eta Nerabeen Eskubideentzako Batzordea:** Hamabi aldiz bildu da, besteak beste, Haur eta Nerabeen Euskal Legea jorrazteko edo "Haur, Nerabe eta Gazteen eskubideen oinarrien eta lehentasunen esparrua".
- ⇒ **Inklusio-batzordea:** Ekainaren 1ean berriro jarri zen martxan batzordea, MDCEren Inklusiorako Batzorde Mistoaren sortzeko lantalde gisa, aipatutako Batzorde Mistoaren garapenerako eta funtzionamendurako Planaren sektoreko-proposamen bat lantzeko. 2 aldiz bildu zen 2023an zehar helburu hori betetzeko.
- ⇒ **GJHen eta 2030 Agendaren Batzordea:** Zazpi aldiz bildu da, besteak beste, gai hauek jorrazteko: EHSSren posizionamendua eta GJHen sentsibilizazioa; GJHen aldeko Euskal Aliantza; EHSSren Gida-Esparrua hurbiltzeko proposamena, GJHak ezartzeko; edo Sareen Sareak 2024rako Trantsizio Sozialeko Eragile Anitzeko Foroa eta 2030 Agendari egindako ekarpenak.
- ⇒ **Eragin Politikotako Batzordea:** Bi aldiz bildu da gai hauek jorrazteko: Gizarte Zerbitzuetara sartzeko eta horiez gozatzeko aukera-berdintasunerako oinarritzko baldintzen Legea eta 2023ko Foru eta Udal Hauteskundeak.



## EHSS sustatzeko estrategia

Hainbattaldetan etalan-batzordetan egindako lanari esker, **EHSS Sustatzeko Estrategiaren 2023ko Urteko Planaren** diseinuari ere ekarpena egin diogu, Sareen Sareak EHSS Sustatzeko Estrategiaren Jarraipen Batzorde Mistoari emandako proposamenekin.

## Sareen Sarearen Plan Estrategikoa

**Sareen Sarearen Plan Estrategikoa**ri dagokionez, 2022an jauzi kualitatibo garrantzitsua egiteko oinarriak finkatu genituen. Abenduan hasi eta 2023an zehar jarraitu du, barneko indartzeari, egituraketari eta antolaketari lotuta. Baita sektorearen erronka batzuk jorratzeko ere, hala nola digitalizazioa, berrikuntza eta jasangarritasuna.

### • Sareen Sareko Plan Estrategikoaren 4. Ildoaren garapena

2020ko abenduaren 16an, Sareen Sareko Zuzendaritza Batzordeak Sareen Sareko II. Plan Estrategikoa (2020-2023) onartu zuen. Planak lau ildo estrategiko ditu garatzeko. Laugarrena hau da: *“Sareen Sarearen malgutasuna, gardentasuna, egituraketa eta jasangarritasuna sendotzea (egitura, talde profesionala, parte-hartzea, kohesioa, gardentasuna...)”*.

## PLAN ESTRATÉGICO 2020-2023 PLAN ESTRATEGIKOA



2022ko otsailaren 11n, Sareen Sareko koordinatzaileak eta Indartzeko Batzordeak 43 orrialdeko dokumentua amaitu zuten, **“Sareen Sarearen korapilo instituzionalak eta antolakuntzakoak. Eztatidarako oharrak”** izenekoa. Helburua da Zuzendaritza Batzordeari informazio erabilgarria eta gogoeta egiteko materiala eskaintzea, arlo horien gaineko egungo errealitateara hurbiltzeko, 2016an elkarteak zuenarekin azterketa alderatua egiteko (egonkortasunaren lehen urtea, datatua eta alderagarria) eta datuen zorrotasunetik eztabaidarako eta erabakiak hartzeko ekarpena egin dezaketen ondorioak ateratzea, funtsezko ikuspegiak hautematea (“korapiloak” deiturikoak) eta antzeko beste sare batzuk ezarritako alternatibak identifikatzea (Hirugarren Sektorearen Plataforma eta Kataluniako Taula hartzen dira erreferentziatzat).

Eztatidaren ondorioa dokumentu-bilduma batean jaso zen lehenik, eta, bigarrenik, adostasun-proposamenen laburpen batean. Azken horren gainean eraiki zen plangintza 2022ko abendutik eta 2023an zehar hedatzeko.

Hedapen horren barruan sartzen dira gobernatzeko eta egituratzeko modu berriak, lantalde teknikoa indartzea, kode etikoa ezartzea, sareetako sarea artikulatzeko dokumentua bigarren eta lehen mailako sareei dagokienez, jasangarritasun-irizpideak, ordezkatzeko espazioak hautatu eta lehenestea, eta batzordeetako plan espezifikoak elkartearen plan orokorrarekin lotzea.


2023ko ekitaldian zehar, ekintza hauek garatu dira gobernatzeko eta egituratzeko modu berriak zabaltzeko:

- **“Sareen Sarean sexu-jazarpenari, sexuan oinarritutako jazarpenari eta LGTBI+ pertsonen aurkako jazarpenaren prebentziorako eta aurre egiteko protokoloa”** egitea, onartzea eta abian jartzea.
- **“Sareen Sarea Gobernatzeko eta Kudeatzeko Kode Etikoa”** egitea, onartzea eta abian jartzea.
- Sareen Sareko Barne Araudiaren eta Estatutuen araudia erreformatzea.
- Batzordeetako plan espezifikoak elkartearen plan orokorrarekin lotzea.

## Sexu-jazarpena, sexuagatiko jazarpena eta LGTBI\* pertsonen aurkako jazarpena prebenitzeko eta aurre egiteko protokoloa

Protokolo hau Sareen Sarean ezartzean lortu nahi den helburu nagusia da sexu-jazarpena, sexuagatiko jazarpena eta LGTBI\* pertsonen aurkako jazarpena prebenitzeko eta aurre egiteko beharrezko neurriak artikulatzea, bide konfidentziala, azkarra eta irisgarria ezarriz, sarearen barruan kexak edo salaketak kudeatzeko.

Protokolo honekin egiten dena da, lehenik eta behin, sexu-jazarpena, sexuagatiko jazarpena, eta jazarpen LGTBIfobikoa prebenitzeko informazioa behar beste zehaztea; jazarpena gertatzen baldin bada, identifikatzea; egoeraren berri duen edozein langileri, erakundearekin lankidetzan aritzen den pertsonari edo edozein pertsonari erakundearen jazarpenaren gaineko barne-salaketa jartzeko prozedurarako sarbidea ematea, eta hala, ikerketarekin hastea, jarraipena egitea eta, hala badagokio, jokabide horien aurkako zigorren bitartez horrekin amaitzea, bai eta ikerketa- eta salaketa-prozesuan jarduketa txarra egin izanagatik jazarpena jasan duen pertsonaren bigarren biktimizazioa ekiditea ere.



## Sareen Sarea Gobernatzeko eta Kudeatzeko Kode Etikoa

2023an zehar, Sareen Sareak Esparru Etiko baten inguruan lerrokatu du haren Misioa. Haren izateko arrazoia definitzen duten balioak eta konpromisoak jasotzen ditu aipatutako Esparru Etikoak. Kideak diren erakundeen, beste erakunde batzuen eta gizarte zibileko eta Administrazioako eragileen arteko jarduketa eremuei eta harreman eremuei koherentzia, kohesioa eta kalitatea ematea da Esparru Etikoaren helburua.

Sareen Sarea Gobernatzeko eta Kudeatzeko Kode Etikoa eta Esparru Etiko horren lehen zehaztapenak definitzen dute Sareen Sarearen printzipioek eta konpromiso etikoek zer nolako irismena duten gobernu- eta kudeaketa-organoetan. Erakundearen ekintzak eta erabakiak hartzeko prozesuak orientatzeko helburua duten argibide zehatzak ematen ditu. Aldi berean, Sareen Sarearen barneko eta kanpoko interrelazio esparruak gardentasunez lantzeko tresna bilakatu nahi du. Azken finean, erakundearen jarduera haren Esparru Etikoarekin lerrokatuta dagoela bermatzea da helburua, eta interes-gatazkek edo jarrera gaitzesgarriek baldintzatu eta kaltetu ez dezaten saiatzea.

Sareen Sarearen arau esparruaren zati osagarria da Gobernatzeko eta Kudeatzeko Kode Etiko hau, Estatutuekin eta Barne Araudiarekin batera eta horiekin koherentzian. Erakundearen gobernu- eta kudeaketa-organoetan parte hartzen duten pertsonen erantzukizunak eta konpromisoak definitzea du xede, eta erantzukizun horiek Sareko antolaketa maila bakoitzean nola egituratzen diren zehaztea.





## Digitalizazioa eta Eraldaketa Soziala

Hirugarren Sektore Sozialak barne hartzen duen jardueran ere eragina du digitalizazioaren eta eraldaketa sozialaren erronkak. Esparru ugarietan (ekonomia, komunikazioa, aisialdia...) digitalizazioan etengabe aurrera egi-ten ari den gizartean, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialako Erakundeak ez dira irtenbide digitalak pixkanaka gehitzeko prozesutik kanpo geratu.

Bere Plan Estrategikoaren indartze estrategikoaren laugarren lerroan, Sareen Sareak aurreikusten du “eraldaketa digitala sustatzea Sareen Sarearen funtzionamenduan, bere sareetan eta, oro har, Euskadiko EHSS osoko sareetan, irisgarritasuna bermatzeko”. Hala, azaldutakoaren arabera, Sareen Sareak honako ekintza hau garatu du 2023an zehar: Digitalizazioari eta eraldaketa digitalari buruzko eztabaida gehitzea EHSSn, EHSSren eguneko 1205 jardunaldiko gogoeten mahaian gai hori gehituz: “Hirugarren Sektore Soziala: digitalizazioa eraldaketa sozialaren zerbitzura”. Mahai horretan izan ziren Lucia Merino (HSSEB) moderatzaile aditua eta Enara Solabarria (Nagusilan), Pablo Ruiz (Bizitegi) eta Lorenzo Martínez (IRSE Araba).



### Berrikuntza

Bestalde, berrikuntzari dagokionez, urtarrilaren 17an bilera bat egin zen Ship Fundazioarekin EHSSko erakundeei talentuarekin eta berrikuntzarekin laguntzeko BValueren VII. edizioa aurkezteko.

Maiatzaren 31tik ekainaren 7ra, Prospektikerrek Sareen Sareko koordinatzailea elkarrizketatu zuen BBK banku-fundazioak arlo sozialean egindako

azterketari buruz, egungo eskaintza publiko eta soziala osatu eta aberasten duten berrikuntza sozialeko proiektuak identifikatzeko egindako elkarrizketa-errondaren barruan. Azkenik, “Berrikuntza Soziala eta Hirugarren Sektorea Euskadin” azterketa 2023ko urrian argitaratu zen.

Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala sustatzeko strategiaren jarraipenerako Batzorde Mistoaren barruan, azaroaren 3an Sareen Sareko presidentea eta koordinatzailea Rafa López-Arosteguirekin bildu ziren, Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politika Saileko Gizarte Politiken Aholkulariarekin, Innobasquek 2023an egindako berrikuntzaren eta EHSSren proiektuaren bilakaera ikusteko, berrikuntza-ekosistemari begira.

Halaber, azaroaren 3an, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Politiken aholkularia eta Fair Saturday elkartearen Sareen Sareko presidentearekin eta koordinatzailearekin bildu ziren, kultur sare inklusiboa sortzeko proiektua aurkezteko, kultura gizartea eraldatzeko tresna gisatzat duten gizarteratze-ekimenen sarea sortzea sustatzeko. Ondoren, abenduaren 18an, Sareen Sareak lehen bilera bat egin zuen Bilbon sare pilotu horren parte izateko interesa zuten erakundeak ezagutzeko.

### Jasangarritasuna: finantzaketa-iturriak

Sareen Sarearen II. Plan Estrategikoaren (2020-2023) berrikuspenaren ostean eta Batzorde Iraunkorarekin 2024tik aurrerako hurrengo Plan Estrategikoaren lehentasunezko ardatzen eta helburuen gainean gogoeta egin eta gero, ondorioztatu da beharrezkoa dela jasangarritasuna lantzea.

Hala, “Jasangarritasuna” lehentasunezko ardatz horretan sakontzen joateko, azaroaren 3an, Sareen Sareko koordinazioa Ferrer i Guàrdia Fundazioko zuzendariarekin bildu zen eta “Ekintza sozialeko hirugarren sektoreko erakundearen finantzaketa” proiektua aurkeztu eta parte hartzeko gonbita egin zigen. Proiektuak proposatzen du estatuan azterketa bat egitea, Ekintza Sozialako Hirugarren Sektoreko erakundeek finantzaketa-iturriari dagokienez dituzten erronka nagusiak eta egoera ezagutzeko.

Zuzendaritza Batzordeak proiektuan parte hartzea onartu zuen eta azaroaren 24an, Sareen Sareko hainbat erakundek eta koordinazioak Proiektuko Euskadiren Focus Groupean hartu genuen parte. Azkenik, abenduaren 12an azterketaren aurkezpenean izan ginen: “Ekintza Sozialeko Hirugarren Sektorera erakundeen finantzaketa: finantzaketa-iturrien eraldaketa eta hobekuntza”.


## Sareen Sarean errealitate berriak gehitzea

- ⇒ Otsailaren 23an Bilbon egindako ezohiko batzarrean, Sareen Sareak onartu zuen Umekin erakundeko kide berria izatea. Sareen Sareko kide guztiak onartu dute Minbizia duten Haurren eta Nerabeen Gurasoen Elkartearen Euskal Federazioa sartzea. Umekin Federazioarekin, 17 erakundek osatzen dute dagoeneko Euskadiko Hirugarren Sektorera Sozialeko erakundeen sarea eta minbizia duten haurren familiek elkarrekin presente dauden gainerako arloekin egin dute bat.
- ⇒ 2023ko martxoaren 6an, Sareen Sareak eta UNICEFek lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten. Horrela, dagoeneko dagoen lankidetzaren formalizazioa da, bai Euskadiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaiaren gunean, bai Unicefek parte hartzen duen Sareen Sarearen batzordeetan. Azken kasu horretan, nabarmendu behar da Sareen Sareko Haur, Nerabe eta Gazteen Eskubideen Batzordean hartzen duela parte. Sareen Sareak eta UNICEFek uste dute akordio horrek Euskadiko Hirugarren Sektorera Sozial “elkartuagoa, sendoagoa eta aitortuagoa, eta eragile sozial eta instituzional guztiarekin elkarrekin izateko gaitasuna duena” egituratzeko ekarpena egiten duela.



## Sareko lana

2023an, **Sareen Sareko sareak eta erakundeak laguntzen** jarraitu dugu hainbat arlotan, esaterako, laguntza teknikoan, plan estrategikoen lankidetzan edo erakundeen finantzaketan.



## 2.2. Gobernantza eta eragin proaktiboa

Sareen Sareak 24 kontseilu eta fororen, Estatuko eta Europako 35 plataformari buruzko informazioaren transmisioa eta trukea errazten ditu. Horietan, Euskadiko sareok ere presentzia dugu.

Gainera, Sareen Sareak laguntza eta koordinazioa eskaintzen die **Euskadiko Elkarrizketa Zibileko Mahaian** (EEMZ) parte hartu duten sareei eta Sareen Sareko koordinatzaileak du EHSSko ordezkariak, **Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Kontseiluko** (EGAB) kontseilari gisa. Sareen Sareko koordinatzaileak, halaber, 2023an egindako EEMZren ohiko lau saiotan eta ezohiko batean ere hartu du parte. Bi foroetan, Sareen Sarea lanak pres-tatu aurreko fasean eta lanak egin eta emaitzak ebaluatu ondoko faseetan lotzen, eztabaidatzen eta adosten saiatzen da.



Sareen Sareko koordinatzaileak, halaber, 2023an egin diren EEMZren ohiko hiru saiotan eta ezohiko batean ere hartu du parte.

Sareen Sareko koordinatzaileak, Sareen Sareko Zuzendaritza Batzordeko bi kiderekin batera, Sareen Sareko eta EEMZko presidentea barne, osatzen dute **EHSSko Sustapen Estrategiaren Jarraipenerako Lantaldearen edo Batzordearen** alde soziala. Aldiz, Gizarte Politiketako Sailburuordetzak, Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak eta bere aholkularitza taldeak batzorde instituzionala osatzen dute. Hiru aldiz elkartu dira urtean zehar.

**EEMZren Batzorde Mistoei** dagokienez, Sareen Sareak DSBEn Araudiaren Dekretuaren proiektuari buruzko posizionamendua landu zuen, maiatzaren 23ko bileran eztabaidatzeko.

Gainera, **Inklusiorako Batzorde Mistoa** sortzearekin, Sareen Sareak ekainaren 5eko zero bileran hartu zuen parte, Sareen Sarearen Batzordeak egindako proposamena aurkezteko.

Halaber, Sareen Sareko Haurren, Nerabeen eta Gazteen Batzordeak EEMZren Batzorde Mistoari helarazteko edukiak eta proiektuak landu ditu.

Abenduaren 21eko bileran, **Euskadiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaiak Zainketen aldeko Euskal Ituna sortzeko akordioa onartu zuen**. Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialean akordioa funtsezko mugarriztat jo zen zainketa-eredua eraldatzeko. Era berean, ituna beharrezko hausnarketa-prozesu luze eta sakonago baten hasiera dela pentsatu zen, dokumentu ireki bat, haren irismenari eta edukiari dagokienez.

### Ekonomia eta Gizarte Kontseilua

**Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari** (EGAB) dagokionez, bere lanak bereziki intentsua eta produktiboa izaten jarraitu du, eta Sareen Sareko koordinatzaileak parte hartu du kontseilari gisa, sareetan adituak diren pertsonekin batera. Mikel Barturennek eztabaidetan eta adostasunen bilaketan hartzen du parte Garapen Sozialerako Batzordean, Memoria Sozioekonomikoaren Batzordean eta Osoko Bilkuran.



EHSSko ordezkariak Garapen Jasangarrirako Batzordearen 7 bileratan hartu du parte, Memoria Sozioekonomikoaren Batzordeko 8 bileratan eta 15 osoko bilkuratan, urtea amaitu arte. Horietan, Eusko Jaurlaritzaren arau-garapenari buruzko irizpenak landu dira, eta Sareen Sareak eta EHSSko beste sare batzuek zenbait proiektu eta aurreproiektu arauemailerik egindako proposamenak aurkeztu dituzte. Hona hemen horietako batzuk.


- **Seme-alabak dituzten familiei laguntzeko Dekretuaren proiektua.**
- **Lankidetzaren eta Elkartasunari buruzko Euskal Legearen aurreproiektua.**
- **Hezkuntzako Euskal Legearen aurreproiektua.**
- **Gizarteratze-enpresen kalifikazioa arautzen duen Dekretuaren Proiektua.**
- **Euskal Autonomia Erkidegoan desgaitasuna duten pertsonen enplegarritasunarekin eta enplegurako zentro berezien Euskal Erregistroarekin lotutako programak eta zerbitzuak arautzen dituen Dekretuaren Proiektua.**
- **Trantsizioenergetikorako eta EAEko kontsumitzaileen babeserako premiazko neurriei buruzko 15/2018 Errege Dekretuak sortutako bonu sozial termikoaren kudeaketa, ebazpena eta ordainketa arautzen duen Dekretuaren Proiektua.**
- **DSBEren Araudiaren Dekretuaren Proiektua.**
- **Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen hainbat dekretu aldatzeko Dekretuaren Proiektua.**
- **Euskadiko Gardentasun Legearen Aurreproiektua.**

Aipatzekoa da 2023an, formula berri bat jarri zela abian: gaian aditua den pertsona bat hasi zen joaten EEGKra aholkulari edo aditu gisa Sareen Sareko kontseilariarekin batera. Ekitaldi honetan hiru aldiz egin da hori. Zehazki, 2023an Sareen Sareari lagundu dioten adituak hauek izan dira: GGKEN Koordinakundeko eragin politikoko teknikaria (urtarrilak 23), Gizateako koordinatzailea (apirilak 21) eta EHLABEko koordinatzailea (maiatzak 2). Saioan, hainbat aldaketa aurkeztu zituen Koordinakundeak eta adostasuna lortu zen gainerako taldeekin. Azkenik, urtarrilaren 31n, ebazpena igorri zen EEGKren osoko bilkuran.

Memoria Sozioekonomikoaren batzordeari dagokionez, 5 bilera egin ziren. Horietatik: Horrez gain, eta EGABen jardueraren barruan:

- Maiatzaren 9an, Ekonomia Sozialaren atala eztabaidatu zen.
- Maiatzaren 31n, EAEko demografiaren, Hezkuntza eta Kulturaren eta Bizi Baldintzen eta Babes Sozialaren atalak.
- Ekainaren 9an, Next Generation Funtsen eta enpleguaren eta laneko harremanen atalak.
- Abenduaren 4an, 2023ko memoria sozioekonomikoa egiteko aurkibidea eta egutegia onartu ziren.

Horrez gain, eta EEGKren jardueraren barruan, maiatzaren 15ean, ekainaren 2an eta 8an eta uztailaren 11n, EEGKren C Taldearen hainbat bilera egin ziren Kontseiluko presidente izateko hautagaia aukeratzeko prozedurari buruz. Halaber, irailaren 28an, bilera bat egin zen batzordeak esleitzeko.



## Parte-hartzea Euskadiko Gobernu Irekirako Aliantzaren

Batez ere Gobernantzarekin lotuta, eta administrazio publikoetako maila guztiekin hitz eginez eta batera parte hartuz, Sareen Sarea 2018tik ari da lanean **OGP Euskadi Gobernu Irekirako Foro Erregularrean, Foro Irekian** eta **“OGP EUSKADI 2021--2024 Ekintza Planarekin lotutako”** bost **Konpromiso Taldeetako** batean, eta 2023 honetan, **ILAB, EUSKADIren PARTAIDETZARAKO BERRIKUNTZA GUNEAREN** talde eragilean, 2024-2025erako proiektua eta lan-dinamikak aurkezteko lehen topaketan parte hartuz.

“Aurrekontuen Gardentasunerako eta Kontuak Emateko Tresna” **2. konpromiso-taldearen jarraipen-bilerei** dagokienez, urtarrilean, otsailean, apirilean eta ekainean hauetan hartu genuen parte:

- Urtarrilaren 10ean, prozesu parte-hartzailearen eta nazioarteko jardunbide egokien azterketaren emaitzak aurkeztu ziren.
- Martxoaren 9ko saioan, web-tresna diseinatzeko proposamen-dokumentua landu zen. Tresna horrek Euskadiko Administrazio Publiko guztien gastuak eta diru-sarrerak jasoko ditu.
- Apirilaren 17an, bilera bat egin zen Euskadiko Gobernu Irekirako Aliantzaren alderdi zibilarekin, Foro Erregularraren hurrengo saioa prestatzeko.
- Ekainaren 29an, bilera bat egin zen Euskadiko Gobernu Irekirako Aliantzaren alde zibilarekin, Foro Erregularraren jardueraren, 2023ko Gobernu Irekiaren sarien eta 2021-2024 ekintza-planaren tarteko ebaluazioaren jarraipena egiteko.
- Irailaren 25ean, Euskadiko Gobernu Irekirako Aliantzaren 2021-2024rako Ekintza Planaren tarteko ebaluazioaren azterketa- eta balorazio-txostena egin zen.

Saio hauetan hartu genuen parte foro erregularrean:

- Apirilaren 18an, bilera bat egin zen OGP Euskadiren Foro Erregularraren eta bost konpromiso-taldeen egoerak aurkeztu ziren. Halaber, gizarte zibilak foroan parte-hartze handiagoa izatea eta Euskadiko Gobernu Irekirako Aliantzaren gaineko sentsibilizazio handiagoa eskatu zituen.
- Urriaren 26an, OGP Euskadiren 2021-2024rako Ekintza Planaren tarteko ebaluazioaren balorazio-txostenak partekatu ziren.

## Trantsizio Sozialeko eta 2030 Agendarako Eragile Anitzeko Foroa

**Trantsizio Sozialeko eta 2030 Agendarako Eragile Anitzeko Foroan** dugun ordezkariaren berezko lanekin jarraitu genuen (31 bilera). Foroaren dekretu arautzaileak foro honetako hainbat ordezkari berru sartzeko dituzte **Sareen Sareak aukeratutako Hirugarren Sektorako hiru ordezkari titular eta hiru ordezkari** Osoko Bilkuran (2 bilera), Batzorde Iraunkorrean (3 bilera) eta Eraldaketa Sozialerako Taldean (3 bilera). 2023an, 2050eko Hiri Agendaren Taldean (3 bilera) eta Guneak espazioan hartu dugu parte (15 bilera), bere talde eragilearekin batera.

Foroko eztabaida, bilera eta akordioetan parte hartzea koordinazio-lan handia izan da sareekin eta erakundeekin, interakzio- eta ezagutza-arlo asko antolatu behar baitira ordezkarietako gizarte-sektore gisa ezagutza eta diskurtso bateratua eskaintzeko.

Adierazgarria da Euskadi 2030 Guneak Lankidetzeta Mahaiaren esparruan, urriaren 16an Sareen Sareko presidente eta presidenteordeak **“Euskadiko 20230 Agenda Kontratu Sozialaren Aldeko Adierazpena”** irakurri zutela, Gasteizko Artium Museoan egin zen **GJHen Euskal Aliantza eratzeko ekitaldian**. Ekimenean, “Agenda 2030 enpresetan eta erakundeetan garatze-ko gida” aurkeztu dute.



Guneaken esparruan, Sareen Sareak sinergiak partekatu ditu Lehendakaritzarekin eta talde eragilearekin, eta proiektuak planifikatu eta hasi ditu 2024rako:

- “Zure langileentzako GJHei buruzko prestakuntza” programa, erakundeetako enplegatuek GJHak zer diren lehen eskutik ezagutu ahal izateko. Eta Actu8 aplikazioaren aurkezpena, GJHen gainean sentsibilizatzeko. Guneak espazioa ari da aplikazio hori sustatzen eta Gobernuak EHSSko erakundeetan probatzera gonbidatu gaitu.
- “Sareen Sareari GJHak eta 2030 Agenda garatzen laguntzeko” proiektua. Lehendakaritzaren eskutik eta Euskalitekin lankidetzan, Sareen Sareak “2030 Agenda garatzeko Gida” Hirugarren sektore Sozialeko erakundeei hurbiltzeko egingo du lan 2024an.

### Intzidentzia politikoa arau, plan eta estrategietan

Une horretara arte azaldutakoaz gain, 2023an Jaurlaritzarekin eta Eusko Legebiltzarrean ordezkariak duten talde politikoekin bilerak eta harremanak izan ditugu proposamenak aurkezteko, eztabaidatzeko eta arlo politikoan hauei buruzko eragina izateko:

- **EHSSko Sustapen Estrategiaren 2021 -2024 Legegintzako Plana (diseinua). Urteko Planak.**
- **Euskadiko Gobernu Irekirako Aliantzaren Ekintza Plana 2021-2024**
- **EEMZko HSSeko sareen finantzaketarako dirulaguntzen agindua**
- **Gazteen Emantzipaziorako Euskal Estrategia.**
- **Gizarte-zerbitzuetara sartzeko eta gozatzeko aukera-berdintasunerako oinarrizko baldintzen Legearen aurreproiektua.**
- **EAEko Gizarte-Zerbitzuen II. Plan Estrategikoa.**
- **Euskadiko Haur eta Nerabeen Legearen proiektua.**
- **Kontzertu Sozialaren Dekretua.**
- **Euskadiko Enpleguaren Legea.**
- **Kataluniako HSSren Legearen Proiektua.**

**EEMZren presentziarekin EHSSren sareak finantzatzeko dirulaguntzen agindu berriaren** proiektua EHSSeren jarraipenerako Batzorde Mistoan landu da.

**Gizarte-zerbitzuetara sartzeko eta gozatzeko aukera-berdintasunerako oinarrizko baldintzen Legearen aurreproiektuari** dagokionez, Sareen Sareak duen posizioa landu zen Eragin Politikorako Batzordean eta Andoni Ortuzar EBBko presidentearekin eta Aitor Esteban EAJren Kongresuko bozeramailearekin bildu ginen, haiek hala eskatuta, otsailaren 6an.

**Gazteen Emantzipaziorako Euskal Estrategia** dela eta, Sareen Sareko Haurren, Nerabeen eta Gazteen Batzordeak proposamen batzuk prestatu eta aurkeztu ditu eta, lehendakaritzak hala eskatuta, bilera bat egin zuen Gazteriaren Zuzendaritzarekin martxoaren 6an, ekarpen horiek defendatzeko.

Martxoaren 24an, saio bat egin zen Justizia, Berdintasun eta Gizarte Politika Sailarekin, **Gizarte Zerbitzuen II. Plan Estrategikoa**ren zirriborroari buruzko Elkarriketa Zibilaren esparruan, plana aurkezteko eta Hirugarren Sektore Sozialeko sareek plan horrentzat egindako kontsiderazioak eta proposamenak biltzeko.

Apirilaren 26an, Elkarrekin Podemosen gonbidapena jaso genuen Ekonomia eta Ogasun Batzordera joateko, **Dirulaguntzen Lege Proiektua** dela eta. Koordinazioak sareek 2019ko aurreproiektuaren fasean aurkeztu zituzten helegiteak bidali zituen. Horretarako, Dirulaguntzen Legearen lantaldea hiru aldiz bildu zen gure proposamenen irismena aztertzeke eta gonbidapenari erantzuteke, eta dokumentu bat aurkeztu zuten Ekonomia eta Ogasuneko batzorde parlamentarioari igortzeko. Uztailaren 20an, Sareen Sareko koordinatzailea eta presidenteordea Eusko Jaurlaritzako Berdintasuneko, Justiziako eta Gizarte Politikako sailburuarekin bildu zen, berak hala eskatuta, Euskadiko Haur eta Nerabeen Legearen Aurreproiektuaren gaineko iritziak trukatzeko, Gobernu Batzordeak onartu eta gero.

Uztailaren 27an, bilera bat egin genuen Eusko Jaurlaritzarekin **Gizarte Itunaren Dekretuari** buruz.

Urriaren 16an, agerraldia egin genuen parlamentuan Sareen Sareko Haurren, Nerabeen eta Gazteen Batzordeak **Euskadiko Haurren eta Nerabeen Lege Proiektuari** egindako ekarpenak aurkezteko.



Azaroaren 6an, presidentea eta presidenteordea Alfonso Gurpegi Enplegurako eta Gizarteratzerako sailburuarekin bildu ziren, **Inklusiorako Euskal Kontseilua arautzen duen Dekretuaren proiektuaren zirriborroa** kontrastatzeko.

Abenduaren 12an, Sareen Sareko koordinatzaileak Kataluniako parlamentuan hitz egin zuen **Kataluniako HSSren Lege Proiektuari** buruz.



Abenduaren 21ean, Sareen Sareko presidenteordea **Euskadiko Enpleguaren Legea** onartzeko Eusko Legebiltzarraren osoko bilkurara joan zen, ekarpenak egin baititugu bertan.

Eusko Jaurlaritzarekin ditugun harremanen barruan, 2023an harremanak izan ditugu **Ekonomia eta Ogasun Sailarekin**. Zehazki, Euskadiko FEDER 2021-2027 Programaren Jarraipen Batzordean hartu dugu parte, eta hiru eserleku izan ditugu gizarte zibilaren ordezkartzan.

Halaber, **Hirugarren Sektore Sozialeko Euskadiko Behatokiaren Jarraipen Batzordearen** jarduera areagotu egin da. Bi ordezkari ditugu bertan eta Euskadiko maila instituzional guztiak daude presente. Urriaren 12an, Gobernuako ordezkariak, hiru aldundietakoek, Eudelekoek eta Sareen Sareko koordinatzaileak batzordean hartu genuen parte. 2022ko Behatokiaren jarduera jorratu eta 2023ko programazioa aurkeztu zen bertan.

Urtarrilaren 27an, **Barometro-Liburu Zuriko Galdetegia** kontrastatzeko saioa egin zen Sareen Sareko sareekin eta HSSEBekin zuzenean, EHSSren Liburu Zuria egiteko erakunde sozialek bete behar duten galdetegia hobetzeko gogoeta egiteko.



Koordinazio-taldea Behatokiarekin bildu zen martxoaren 22an proiektuak lerrokatzeko eta 1205eko gogoetarako mahaiaren gaia prestatzeko.

Eta urtea amaitzeko, abenduaren 14an, Sareen Sareko koordinatzaileak **“Erakunde gazteei”** buruzko HSSEBren tailer batean hartu zuen parte.

## 2.3. Harremanak eta aliantzak

2023an, beste sektore-plataforma batzuekin, gizarte-eragileekin eta unibertsitateekin dugun harremana sendotu dugu.

### Hirugarren Sektore Sozialaren Plataforma eta Taula d'Entitats del Tercer Sector Social de Catalunya

Espainiako Hirugarren Sektoreko Plataformari (PTS) dagokionez, Alarma Egoeraren Deklaraziotik, Sareen Sareak **PTSren Lurralde mailako Koordinazio Batzordean** hartzen du parte (2023an 8 bilera eta 2 jardunaldi). Sareen Sareak eta Kataluniako Taulak 2020ko apiriletik daramagu foroan parte hartzen, baina ez gara plataformako kideak organikoki. Batzorde horretako kideak dira, besteak beste, PTSko presidentea eta plataforma autonomikoetako presidentetzak. Positiboa da ekarpenen trukearekin lotuta egindako balorazioa.

Azaroaren 15ean eta 16an, Sareen Sareko koordinatzailea Plataformak antolatutako Hirugarren Sektore Sozialaren lurralde arteko topaketan izan zen: HSSrekin lankidetzan aritzeko eta indartzeko espazioa da. Topaketa horretan, koordinatzaileak **"HSSren esperientzia elkarrizketa zibilari eta Euskadiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaiaren funtzionamenduari dagokionez"** aurkezpena egin zuen. Egun horietan HSSren finantzaketa eta jasagarritasuna landu zen eta PFEZren eta Sozietateen gaineko Zergen balantzea egin zen. Baita erkidegoko plataformen intzidentzia- eta komunikazio-politikak ere.



Kataluniako Hirugarren Sektore Sozialaren Taularekin eta PTSrekin dauden harremanei dagokienez, lehen hiruhilekoan zehar, gizarte-zerbitzuetara sartzeko eta gozatzeko aukera-berdintasunerako oinarritzko baldintzen Legearen aurreproiektuari buruzko iritziak trukatu ziren.

### Estatuko Haurtzaroaren Plataforma


Martxoaren 16an, presidenteak eta koordinatzaileak bilera bat izan zuten Estatuko Haurtzaroaren Plataformaren zuzendaritzarekin, Sareen Sareko Haurren, Nerabeen eta Gazteen Batzordearekin lankidetzan hasteko balizko lehen kontaktu gisa.

Plataformaren eta Sareen Sarearen Batzordearen artean kontrastatzeko eta elkar ezagutzeko bilera bat egin ondoren, ekainaren 8an, elkarrizketarako eta informazioa trukatzeko bide bat zabaltzea adostu zuten.

### EAPN España

Martxoaren 8an, EAPN-Euskadik hala eskatuta, Sareen Sarea harremanetan jarri zen EAPN-Españarekin adinekoren parte-hartzeari buruz hitz egiteko; izan ere, ikerketa bat egiten ari dira estatuan adinekoei buruz eta martxoaren 31rako adinekoren parte-hartzeari, hori sustatzeko jardunbide egokiei eta abarri buruzko jardunaldi batzuk antolatu zituzten. Hala, arlo horretan lan egiten zuten eta jardunaldian edo ikerketan parte hartzeko prest zeuden erakundeen eta ekimenen erreferentziak behar zituzten.

Azaroaren 22an, koordinazioa EAPN-ESen Urteko Mintegira joan zen, Bilbo-ra, "Gizarte-eredu berrian gizarte-ongizateak dituen erronkak" lelopean.





## Unibertsitateak eta Ikerketa Zentroak

Unibertsitateen kasuan, urtarrilaren 18an, Sareen Sareko Zuzendaritza Batzordea **Orkestra-Lehiakortasunerako Euskal Institutuarekin** bildu zen (**Deustuko Unibertsitatearen** ekimena da), hark hala eskatuta eta Gizarte Politiketako sailburuordeak emandako erreferentziengatik. Marijose Aranguren Orkestrako zuzendari nagusia eta Ane Izulain teknikaria izan ziren bertan, Sareen Sarearekin kontraste-saio bat egiteko, Euskadiren 2040ko ongizaterako lehiakortasun-ikuspegia eta -erronkak eraikitzeke prozesuari buruz.



Orkestra-Lehiakortasunerako Euskal Institutua Eusko Jaurlaritzarekin ari da lanean, zehazki, Ekonomiaren Garapenaren, Jasangarritasunaren eta Ingurumenaren Sailarekin eta Lehendakartzarekin, Euskadiren lehiakortasunerako erronkak zein diren eta nola aldatzen ari diren identifikatzeko, ongizate-eredu jasangarria eta inklusiboa sortzeko, modu kolaboratiboan, lurraldeko eragile guztien ezagutza eta ahaleginak uztartuz.

Martxoaren 20an, Sareen Sareko koordinazioak bilera bat egin zuen **EHUko** taldearekin, lankidetzabideak zabaltzeko **“ASG alderdiei buruzko informazio ez finantzarioa egitea eta egiaztatzea”** (ingurumenekoak, sozialak eta gobernu korporatibokoak) ikerketarekin, Euskadiko enpresen eta beste erakunde batzuen kudeaketa hobetzeko reporting sistema bat diseinatuz, EHSSko erakundeek informazio ez finantzarioa zabaldu ahal izateko. Azkenik, lankidetzabide izan da EHSSko erakundeei proiektuari buruzko galdetegi bat bidaltzea.

Lankidetzabide jarraitzen dugu Olaia Larruskain **EHUko Psikologia Sozialeko Saileko irakaslearekin, “Irabazi asmorik gabeko erakundearen arteko lankidetzabide arrakasta-faktoreak: ikuspegia berrikuntza sozialetik”** ikerketa-lanean. Irailean, harremana egin genuen Inor Atzean Utzi Gabe Programako erakundeekin.

## Enpresa-erakundeak eta sindikatuak

Urtarrilean, Sareen Sareko koordinatzailea **CCOO sindikatuarekin** eta GGKEn Koordinakundearekin bildu zen, lankidetzabidearekin eta Elkartasunerako Aurreproiektuari buruz hitz egiteko. Bakea eta Elkartasuna Fundazioko (sindikatuari atxikia) Sonia Gonzalez zuzendariak hartu zuen parte (CCOOko Ekintza Soziopolitikorako eta Komunikaziorako idazkariaren ordean, ezin izan baitzuen joan).

Ekainaren 21ean, **FIARE-Banca Etikoa** Zuzendaritza Batzordearekin eta Sareen Sareko koordinazio-taldearekin bildu zen, bilakaeraren eta zerbitzuen prestazio berrien berri emateko. Baita Sareen Sareari aurrezkoa kudeatzeko irabazi asmorik gabeko kreditu-kooperatiba horretako akzionista izateko gonbita egiteko ere, helburu sozialak eta ingurumenekoak dituzten ekimen sozio-ekonomikoetara bideratuz.



**CEBEKek** bere urteko Batzar Nagusira gonbidatu gintuen Bilbon, maiatzaren 11n.

## Alderdi politikoak

Alderdi politikoekin izandako harremanari dagokionez, **EAJko EBBrekin** irekitako komunikazio-lerroak jarraipena du. 2023an bilera bat egin genuen eta hainbat harreman telematiko izan genituen.

Gizarte-zerbitzuetara sartzeko eta gozatzeko aukera-berdintasunerako oinarrizko baldintzen Legearen aurreproiektuari dagokionez eta Familia Legearen aurreproiektuari dagokionez, Sareen Sareak duen posizioa landu zen Eragin Politikorako Batzordean eta Andoni Ortuzar EBBko presidentearekin eta Aitor Esteban EAJren Kongresuko bozeramailearekin bildu ginen, haiek hala eskatuta, otsailaren 6an.

Foru- eta udal-hauteskundearen kasuan, Sareen Sarearen jarreraren dekalogoia egin eta gero, legebiltzarrean ordezkari izan den alderdi politikoei bidali zitzaizkien. Halaber, bilera bat egin genuen **Ezker Anitzarekin** martxoaren 20an, haiek hala eskatuta, Lorena Viciosorekin (Ezker Anitza-IUren harreman sozialaren eta programaren arduraduna) eta Israel Escalanterekin (Bizkaiko Ezker Anitza-IUren koordinatzailea eta Bizkaiko Batzar Nagusietako batzarkidea).



Bestalde, uztailaren 10ean, Sareen Sareko koordinatzailea **Elkarrekin Po-demosekin** elkartu zen, hurrengo urteko lege-egutegia jorrazteko. Abenduan berriro bildu ginen, orainoan, Eusko Jaurlaritzak onartutako Kontzer-tu Sozialaren Dekretuaren gainean Sareen Sareak zuen jarrerari buruzko informazioa jaso nahi zutelako.

## Beste ekitaldi batzuk

Sareen Sareak 2023an antolatu dituen edo parte hartu duen ekitaldien zerrenda egingo dugu, dagoeneko azaldu ditugunez gain:

- ⇒ Euskadiko Estrategia aurkeztea Gasteizko adineko pertsonekin. Urtarrilak 20 Sareen Sareko koordinatzailea izan zen bertan.
- ⇒ Garapen Ekonomikorako, Jasangarritasunerako eta Ingurumenerako Sailak gonbidatuta, Sareen Sareko koordinatzailea Boost-Euskadiren Jasangarritasunerako Ingurumen Heziketaren proiektuaren jardunaldian izan zen urtarrilaren 26an.
- ⇒ Gipuzkoako EHSSren Erakundearen Erroldaren HSSko Euskal Behatokiak aurkezteko jardunaldia ekainaren 9an. Sareen Sareko koordinatzailea izan zen bertan.
- ⇒ Familia-kontziliaziorako kongresua. HSSko erakundearen atala, ekainak 15. Sareen Sareko koordinatzailea izan zen bertan.
- ⇒ Euskadiko Inklusioari buruzko III. Jardunaldiak, ekainaren 28an. Sareen Sareko koordinatzailea izan zen bertan.
- ⇒ Deustuko Unibertsitateko ikasturte hasierako ekitaldia, irailaren 20an. Sareen Sareko koordinatzailea izan zen bertan.
- ⇒ Euskadiko Zaintzei buruzko Kongresua, azaroaren 15ean eta 16an. Sareen Sareak "EHSSk zaintzei egiten dien ekarpena" mahaia antolatu zuen.



## 2.4. EHSSren posizionamendu soziala

Ezinbestekoa da sektorearen sustapena eta aitorpena, **eragin publikoa** eta beste gizarte-talde batzuekin **harreman estrategikoak**, kolaboraziokoak eta aliantzakoak eraikitzea Sareen Sareak Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala erreferentziazko gizarte-eragileen artean kokatzeko duen helburua betetzeko.

Gure mezua EAEko gizarteari zabaltzeko, **topaketa eta komunikazioa errazten duten hainbat tresna** erabiltzen ditugu: ekitaldi publikoak, komunikabideak, informazioaren eta komunikazioaren eta ikus-entzunezko euskarrien teknologiak.

2023an, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren posizionamenduarekin, sustapenarekin eta gizartera irekitzearekin lotuta mugarri esanguratsuak egon dira.

## Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Eguna 1205

2023an, **1205-EUSKADIKO HIRUGARREN SEKTORE SOZIALAREN EGUNA** izan zen eta instituzioetako, sektoreko sareetako eta erakundeetako 200 pertsona bildu ginen Donostiako Carlos Santamaria zentroan. Dagoeneko ohikoa den moduan, ekitaldian Iñigo Urkullu lehendakaria eta beste autoritate batzuk izan ziren. **“Aldaketaren hazia inspiratuz”** lelopean, egin zen ekitaldia eta baita ekitaldiarekin lotutako sare sozialetako kanpaina ere, hamar egunez, eraldaketa sozialaren alde lan egiteko beharra eta Euskadi dibertsoagoa, inklusiboagoa eta solidarioagoa eraikitzeko beharra aldarrikatuz.



Aste batzuk lehenago, herritarrentzako jarduera parte-hartzaile ireki bat egin genuen Gasteizen, eta zuhaitzetako adarretan mezuak zintzilikatu genituen aldaketa inspiratzeko. Hala, 1205 ekitaldian parte hartu zuten pertsonak eraldaketa sozialerako desioz betetako zuhaitza osatu ahal izan zuten. Elkartasun kolektiborako mezuak eta aldaketa sozialaren aldeko konpromiso sendoa, egungo eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko”.



Aurtengo mahai-inguruaren gaia izan da pertsonak eta haien beharrak kontuan izango dituen eraldaketa digitalerako eraikuntza soziala jorratzea. Sarean eta kolektibotik lan egiteko beharra, teknologia partekatu eta etikoarekin, eraldaketa sozialera bideratuta eta eraldaketa digital arduratsua lortzeko helburuarekin.

Kanpainaren ideia eta ekimen parte-hartzailea Sareen Sarearen Komunikazio Batzordearen, Sareen Sarearen talde teknikoaren eta horretarako kontratatutako agentziaren bilera batean definitzen dira.

Kanpainak izan dituen inpaktuaren emaitzak oso positiboak dira, ebaluazio-txostenetik ondorioztatutakoaren arabera.

Informazio guztia, bideoak barne, [gure webgunearen bitartez](#) kontsulta daiteke.


## 2023ko Foru eta Udal Hauteskunde Kanpaina

2023ko Foru eta Udal Hauteskundeak direla eta, Sareen Sareak komunikazio-kanpaina bat egin du EHSSren proposamenak zabaltzeko. Kanpainak hainbat komunikazio-ekintza ditu, hala nola eskuorri bat diseinatzea proposamenekin, post bat sare sozialetan eta newsletter digital bat zabaltzea.



Gainera, Sareen Sareak beste sare batzuekin jarduten du hauteskundearen esparruan eragina duten ekintzak egiteko:

- Otsailaren 23an, kolektibo zaurgarriek foru- eta udal-hauteskundeetan parte hartu behar zutela eta, EAPN Euskadirekin harremanetan jarri ginen, desgaitasun intelektuala, buruko gaixotasuna edo narriadura kognitiboa dutelako zaintzapean dauden eta ezintasun judizial bat duten pertsonen parte-hartzeari dagokionez genituen zalantzak argitzeko.
- Sareen Sareak Euskadiko GGKEen Koordinakundearekin elkarlanean jardun zuen apirilaren 25eko hauteskunde-debatea antolatuzko: "Elkartasuna da erantzuna: Ziurgabetasun global handiko testuinguru honetan, inor atzean ez geratzeko erronkak, neurriak eta gizarte-politikak".
- Maiatzaren 9an, Sareen Sareko koordinatzailea Astialdi Sareak, EAPNk, Save the Childrenek eta Unicefek antolatutako jardunaldian izan zen; "Hitz Egin Dezagun Haur eta Nerabeez: Udal eta Foru Hauteskundeak".
- Maiatzaren 9an, Sareen Sareko Koordinatzailea Fevasen "Nire botoak balio du" jardunaldian izan zen.



## Sare Berri: boletín digital

2023an, Sareen Sareak **komunikazio tresna indartsu** horrekin jarraitzen du, barneko eta kanpoko komunikazioa sustatzeko. 2023aren itxieran **11 newsletter** (9 hileko eta 2 ale berezi) bidali dira eta 575 pertsona daude informazio-buletin honetan harpidetuta.



## Herri Irratiarekin kolaborazio-hitzarmena

2023an Radio Popular-Herri Irratiko «**Es posible**» programan parte hartzen jarraitu zuen Sareen Sareak; hari atxikitako sare eta entitate gehienek parte hartu zuten bertan. Juanma Jubera kazetariak zuzendutako programa honetan entitateek beren errealitatearen, egiten duten lanaren, dituzten proiektu berrien edota ekitaldi puntualen berri emateko aukera izan dute.



KOMUNIKAZIOA

3

# Zer komunikatu dugugu?

## Agerraldiak komunikabideetan

2023an Sareen Sareak komunikabideetan egindako 60 agerraldi zenbatu ditugu, gutxienez. **Hautaketa honek bost garrantzitsuenetakoak jasotzen ditu:**

- ➡ **Radio Popular:** [Sareen Sarea apuesta por una Euskadi más igualitaria y justa](#)
- ➡ **El Correo:** [Transformación digital, una oportunidad para el cambio en el Tercer Sector Social](#)
- ➡ **Europa Press:** [Soraia Chacón, elegida nueva presidenta de Sareen Sarea](#)
- ➡ **Deia:** [Sareen Sarea en el Encuentro Agenda 2030, Alianza Vasca por los ODS](#)
- ➡ **Europa Press:** [Sareen Sarea y Unicef firman un acuerdo de colaboración para fortalecer y regular sus relaciones](#)
- ➡ **Europa Press:** [Sareen Sarea reclama en el Parlamento un aumento de la ratio de psicólogos y psiquiatras infantojuveniles](#)



## Medios de Sareen Sarea

Sareen Sareak webgune bat, buletin digital bat eta profilak ditu hainbat sare sozialetan. 2023ko udazkenean, **bi profil berri sortu ziren LinkedInen eta Instagramen**, gure komunikazioen eragina handitzeko eta audientzia-segmentu berriak lortzeko.

Jarraian, gure komunikabide sozialek 2023an izan duten eraginari buruzko daturik garrantzitsuenak azalduko ditugu (ez da LinkedInen edo Instagramen daturik erakusten, ez baitugu kanal horien urteko emaitzarik, jarduera ekitaldi hartako udazkenean hasi zelako).



**737 txio | 50.720 inpresio | 2.254 interakzio**  
**120 jarraitzaile berri**



**249 post | 24.663 pertsonako irismena | 1.890 interakzio**  
**18 jarraitzaile berri**



**12 bideo | 1.738 bistaratze | 25.300 inpresio**



**62 albiste (31 euskaraz eta 31 gaztelaniaz) | 26.756 bisita**  
**3.887 erabiltzaile | 58.267 interakzio**



# Kontuak argi

2023ko DIRU-SARRERAK	
Bazkideen eta afiliatuen kuotak	17.500,00
Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	226.000,00
Bestelako diru-sarrerak	20.000,71
<b>2023ko DIRU-SARRERAK GUZTIRA:</b>	<b>263.500,71</b>
2023ko GASTUAK	
Errentamenduak eta kanonak	26.918,39
Konponketak eta mantenimendua	5.953,51
Zerbitzu profesionalak	15.829,80
Garraio-gastuak	545,83
Aseguruetoako primak	280,08
Banku-zerbitzuak eta antzekoak	450,77
Publizitatea, propaganda eta HH.PP.	31.570,07
Hornidurak	1.519,02
Beste zerbitzu batzuk	5.588,87
Langileen gastuak	156.413,56
Beste kudeaketa gastu batzuk	120,39
Ibilgetu materialaren amortizazioa	4.088,83
<b>2023ko GASTUAK GUZTIRA:</b>	<b>249.279,12</b>



# **Sareen sareea**

**Euskadiko Hirugarren  
Sektore Soziala**

**Tercer Sector Social  
de Euskadi**

**[www.sareensarea.eus](http://www.sareensarea.eus)**